


MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

299 - 2022ko otsaila

LURRA ETA IBARRA
BIZIBERRITZEN



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera:
mailope@labrit.net / 638 652 339.



M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala


948513056
699179437



Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiztua ere
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.
issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Ttuturre kirol elkarteak, Printza, Iñigo Garcia, AEK, Rosi Gaztelumendi, Nick Demou - Pexels.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Mikel Urriza.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Otsaileko zorion agurrak.

10

ELKARRIZKETA



Iñigo Ruiz eta Iñigo Garcia.

14

BATZARRE

16

ERREPORTAJEA



Sagardoaren kimu berriak.

22

ERREPORTAJETXOA “Zahar-etxe publikoak nahi ditugu, duinak”

28

PLAZATIK PLAZARA Lekunberri, munduko herri turistiko onenen artean.

31

AGENDA





Ane Eguzkitza Telletxea
Otsailaren 3an, 3 urte.
Aunitz urtez, Ane! Muxuak, ttiki,
eta zorionak!



Itxaso Oreja Altuna
Otsailaren 1ean, 7 urte.
Zorionak eta urte askotako,
politte!!! Ongi-ongi pasa zure eu-
nean!!! Muxu haundi bat denon
partez!!!



Urtzi Argiñarena Saralegi
Otsailaren 5ean, 9 urte.
Aupa Urtzi, segi orain arte bezain jator,
alai eta goxoa izaten. Ongi pasa zure
egunean, muxu pottolo bat famili
guztin partez.



Haitz eta Jare Albeniz Maiza
Otsailaren 26an, urte bat.
Zorionak etxeko izar berriei,
aitatxo, amatxo eta Enairen
partez.

Josu Zabaleta Argiñena
Otsailaren 16an, 10 urte.
Zorionak, Josu! 10 urte
jada! Egun berezi honetan
ongi-ongi pasatzea espero
dugu. Asko maite zaitugu.
Muxu erraldoi bat Lekunberri
eta Oibarreko famili guztien
partetik.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



IHOTEAK KOLOKAN

Uitzin ez zituzten ihoteak ospatu ilbeltzean, eta gainerako herrietan ere oraindik ez dago argi ospatuko diren. Ospatzen badira ere, ikusteko dago otsailaren 14tik aurrera zer neurri egonen diren indarrean. Betelun, esaterako, martxoaren 5ean egingo dituzte. Lekunberrin, berriz, otsailaren 19an, eta Larraunen ez dute erabaki oraindik.



ARALARKO GUARDETXEA BUELTAN

Hamabi urteren ondoren, baliteke Aralarko guardetxea itzultzea. Izan ere, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa baten bidez, Nafarroako aurrekontu orokorretan 150.000 euro esleitu zaizkio proiektuari. Ingurumeneko eta La Unionekeo langileek ibilgailu bat erabili dute urte hauetan bulegoko lanak egiteko. Urtean 100.000 lagun inguru joaten dira Aralarrera.



KOMUN BERRIAK LEKUNBERRIKO FRONTOIAN


Bukatu dituzte frontoia berritzeko lanak, eta komun berri bat jarri dute. Frontoian aritzen direnek ez ezik, ondoko haur parkean nahiz inguruan daudenek ere erabili ahalko dute, kanpoaldetik sartzeko aukera egongo baita. Horrez gain, elementu mugatzaileak jarri dituzte aparkalekuan, sarbidea segurua izan dadin.

5

► Hodei Buldain (Lekunberri)



*Gehiengoa joan izan arren
zerbait hemen dugu utzi,
galde eginez gure buruari
problema hau nola ebatzi.
Jasan ditugu hainbat iseka
txutxumutxu ta iritzi
ta ez du axola, ezin baitugu
bizitako dena ahantzi
Beti Kozkor guk, maite zaitugu
atzo, gaur, bihar ta etzi.*



Hurrengoa: Mikel Martirena (Uitzi)

ERASOEN AURREAN KLASE ELKARTASUNA

Erasotik bi egunera egindako elkarretaratzean zabalduko idazkia:

2022ko urtarrilak 10 astelehen ilunabarrean guztion ezustetarako, pertsona batek traktorearekin Printzako atea jo eta lehertu egin zigun. Hau onartezina da eta hori salatzeke elkartu gara gaurkoan hemen.

Erasoen aurrean zergatik aipatzen dugun klase elkartasuna galdetuko dute batzuek. Ustez denona zen espazio bat zergatik okupatu genuen besteek. Hain zuzen gizarte hau zapaldu eta zapaltzaileen arteko klaseetan banatua dagoelako batetik. Eta gutxiengoaren menpe dauden espazioak, gehiengoaren mesedera erabiltzeko bestetik.

Mundu mailan pairatzen ari garen krisialdi hau, inoiz baino argiago ari zaigu erakusten zein den boteretsuen eta politikarien jarrera: etekinak pilatzen jarraitu nahi dute, pertsonak zein natura aurretik eraman behar badira ere. Batzuk autobus zein metroan kabitu ezinik gabiltzan bitartean, beste batzuk hegazkin pribatuarekin dabilta hara eta hona. Batzuk argia eta gasoila ordaindu ezinik gabiltzan bitartean, beste batzuk paradixu fiskaletan jolasten dira. Batzuk aterpe bat eskuratzeko bizitza lanean eman behar dugun bitartean, besteek eraikuntzekin nola aberastu pentsatzen jarraitzen dute. Batzuk kalean hiltzen garen bitartean, beste batzuk luxuzko oporraldietan bizi dira. Eskaintzen diguten bizitza gogaikarri honekin batzuk gure buruaz beste egiten dugun bitartean, besteek gutaz parre egiten dute.

Hori da gaur egungo eta mundu mailako basakeria kapitalistaren errealitate gordina. Burgesiak, arazorik badugu, bere kontrolpeko legetara jo eta horiek hobetzeko esaten digu. Berak zainduko gaituela dio bere gurpilari eragitera behartzen gaituen bitartean. Eta guzti hori kolokan jartzera bagatoz, eztauka gu egurtu eta gure kontrako iritzi orokortu bat sortzeko problemarik. Laguntzen diotenak kolaboratzaileak dira noski. Horren ondorio da jasan berri dugun eraso. Langileria antolatua gara era konzientean honi aurre egiteko beharra eta gaitasuna dugun bakarrak.

Ez dago antolatzerik espaziorik gabe eta beharrezkoa genuelako jarri genuen martxan Printza. Gure beharrak asetzeko etengabe dirura jo edota etengabe jabetunen instituzioei mesede eske ibili behar bagara, akabo. Elikadura, etxebizitza eta osasun zerbitzu doako,

kalitatezko eta unibertsalak lortzeko desjabetuon botereguneak indartu beharrak dauzkagu. Espazio honen laguntzaz lanean daramazkigun bi urte eta erdi hauetan, daukagun boterean sinisteko arrazoiak sobera izan ditugu. Elkartasunaren eta borondate onaren bidez, hamarnaka emanaldi, kontzertu, ikuskizun, hitzaldi eta tailer eraman ditugu aurrera. Hamarnaka musikari, artista eta aditu izan ditugu gurekin. Hamarnaka harreman, lagun, ikaspen, esperientzia eta amets lortu ditugu. Hamarnaka pertsonak sinistu dute mundu berri eta justu bat eraikitzean. Hamarnaka kidek lortu dute haien platerak betetzea. Eta hamarnaka aurrerapauso ematen jarraitzeko prest gaude gaurko egunean ere.

Langileon artean pairatzen ditugu zauri mingarrienak bai, baina horiei marra gorriak jarri eta atzera bueltarik gabeko bide bati heltzeko konpromisoa daukagu, klaserik eta zapalkuntzarik gabeko mundua ipar. Ahal duena aportatuz, bide honetan laguntzeko prest dagoena, beso zabalik hartuko dugu.

San Juan bezperarekin abiarazi genuen Printza eta izpiritu txarrak erreko dituen su haundi bilakatu arte jarraituko dugu lanean. Ez gaituzue geldituko!

Langileon kontrolpeko espazioak egonkortzea ezinbestekoa dugu eta bihar eguerdian Laboral Kutxak hustu nahi duen Gasteizko Zentro Sozialistari ere gure babesa adierazi nahi diogu. Azkenik astelehenean Tuteran izandako erailketa matxista ere salatzen dugu.

Erasoen aurrean klase elkartasuna!

Printza gune autogestionatua



Traktorea atea botatzen. Arg: Printza

 **NEKAZARI, S.L.**

ANTONIO CARRARO 

Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazaris@hotmail.com 

BIDEGOXO  **JATETXEA**

Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com

LEKUNBERRI, BIZITZEKO LEKU ONA

Duela egun batzuk, gure bizilekua Lekunberrin finkatzeak eragin zuenari buruz hitz egin genuenean, Larraungo bailarako inguru inbidiagarrian zegoen herri polit batera iritsi ginela gogoratu genuen, gure bizitza eta familia beharrak asetzeko gutxieneko zerbitzuak zituen. Gure ustez, ezer gutxi gehiago, gainerakoa aurkitzeke baitzegoen.

Gure seme-alabak iritsi ziren, eta denbora gutxi behar izan genuen egiazatzeko, gainera, Ikastetxe bat eta haien hezkuntza eta garapen integralerako azpiegiturak ditugula: haur-parkeak, kultur etxea, frontoia, kiroldegia, etab. Kultura eta kirol jarduera interesgarria duen herri bizia eta gainera, haiek babesteko osasun-zentro bat ere dagoela kontuan hartuta. Maiz bizi izan ditugu haurren algarak beraien jolasekin Herriko Plazan. Herri on batean geunden bizitzeko.

Udalerrian gure bizitza eta gure familiena sendotzen ari ginen bitartean, ohartu ginen zer-nolako garrantzia zuen bertan lan egiteko aukera izatea. 500 lanpostu baino gehiago izatearen garrantzia, alegia. Lanpostu horiek Lekunberri eta Larraun haraneko langileek betetzen zituzten batez ere, beraz, ez zuten beste leku batera lan bila joan beharrik. Zerbait ongi egiten ari zen herrian, bertan ikasi eta lan egiteko aukera izateko.

Gure egungo bizilagunekin partekatu ditugu udalerraren garapenaren azken urteak, eta egitura berrien sorrera bititu dugu, hala nola, Eguneko Zentroa, udalerrira mantentzeko planak, kirol-instalazioak eraberritzeko lanak, digitalizazioa eta abar. Horrez gain, turismo-estrategia baten garapena ere bizi izan dugu, horrek Turismoaren Mundu Erakundeak, turismo jasangarriari eman dion sari ezaguna lortzeko bidea eman duena.

Udalerrirako etorkizun eta garapen planik gabe, ezin izango zen horrelakorik lortu, komunikazioa (autobidea), lanpostuak sortzea (industrialdea) eta etxebizitza berriak eraikitzea. 20 urtetan 800 biztanletik 1.500 biztanlera

pasatzeak, besteak beste, bertan bizitzeko aukera eman digu, eta Lekunberri, Nafarroako lekurik onenetako batean kokatu dute; herri gaztea, hazkunde tasarik handienetakoa duena. Bizi-kalitatea esaten zaion hori daukagu, hazkunde demografikoari esker gaur egun ditugun hainbat azpiegitura eraiki ahal izan direlako.

Kudeaketaren munduan mugitzen garenok badakigu ez dela zerutik eroritako ondarea, gure bizilagun batzuek iragana kudeatu zuten, baita oraina ere, eta etorkizunerako ikuspegia izan zuten. Jakin badakigu udalerraren egungo egoerara iritsi garela, Udaletik erabaki ausartak (batzuetan ez gustukoak) hartzen jakin zuten politikariei eta udal-taldeei esker. Erabaki horiek epe luzera oso aberasgarriak eta errentagarriak izan dira herriarentzat eta bertako biztanleentzat, eta batzuk (gutxi batzuk) ez dira hori balioesteko gai. Lan-ildo beretik jarraitzea animatzen zaituztegu.

Azkenaldian, berriz ere, udalerrian lan jakin batzuen egokitasunari buruzko eztabaida pizten duten udal-erabakien aurrean gaude: ibaiaren ertzak garbitzea eta zentroa oinezkoentzat jartzea; gure ustez, garrantzitsuak dira, eta zorrotzasunez eta edozein obra edo esku-hartze publikok eskatzen dituen baldintza guztiak betez gauzatu dira. Benetan harritzen gaituena da hainbeste denbora behar izatea lan horiek burutzeko (urte batzuetako atzerapena) eta aurka daudenek alternatibarik ez aurkeztea. Zer proposatzen dute? Ez dakigu. Beraz, udal taldea animatzen dugu gaur egungo beharretara eta datozen belaunaldiei egokitutako Lekunberri hori eraikitzen jarraitzeko.

**Koldo Monreal, Jose Ángel Huizi, Iñigo García,
Sabin Atxalandabaso.**

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

ETXEGO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

LEKUNBERRI ETA LARRAUN, EZINBESTEKO LANKIDETZA

Duela gutxi, Munduko Turismo Erakundeak Lekunberriko udalerrari "Best Tourism Village" zigilua eman dio (herri turistiko onenaren saria), eta aitortza hori aurkezpen gutun bikaina izan da Nafarroarentzat FITUR turismo azokan.

ZORIONAK Lekunberri, sari honen aurretik lan eraginkorra egingo baitzen. Baina uste dut Larraunek eta bertako biztanleek merezi dutela bere proiektioa sari honetan, bertako herriak direlako sari hori eskuratzeko deialdiak ezarritako baldintzek goraipatutako "paisaia" hori osatzen duten protagonista nagusiak.

Lekunberri du izena zigiluak, baina Larraungo lurraldearen zati batean bereizketa hori aipatu gabe dagoela esan daiteke. Zergatik esaten dut hau? Bere garaian, komunikabideek sari horren berri eman zutenean, sari horien deialdiaren esparrua eta oinarriak zeintzuk ziren jakin nahi izan nuen. (<https://www.unwto.org/tourism-villages/wp-content/uploads/2021/05/areas-of-evaluation-sp.pdf>).

Zigilu honen helburuak asmo handikoak dira, eta baldintzak oso zorrotzak dira zigilua emateko. "Best Tourism Villages by UNWTO" ekimen pilotuak turismoa eraldaketarako, landa-garapenerako eta komunitateen ongizaterako indar positibo bihurtu nahi du. Turismoak landa-herriak balioesteko eta babesteko duen zeregina bultzatu nahi du, lotutako paisaiekin, ezagutzasistemekin, biologia- eta kultura-aniztasunarekin, tokiko balioekin eta jarduerekin (nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta/edo arrantza) batera, horien gastronomia barne. Ekimenak, bereziki, landa-helmugetan turismoa garatzeko ikuspegi berritzaileak eta eraldatzaileak sustatuko ditu, jasangarritasunaren hiru zutabeak – Ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa – lortzen laguntzeko, Garapen Jasangarriko Helburuen (GIH) ildotik".

Bederatzi ebaluazio-eremu daude, eta, horien artean, bik, honako hau aipatzen dute: "Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantza bezalako jarduerak tradizionalen presentzia handia duen paisaia batean egotea, eta baliabide natural aitortuak izatea".

Eta paisaia hori eta baliabide horietako batzuk Lekunberriko lurraldetik harago daude eta Larraungo zenbait herri hartzen dituzte.


Larraungo herriak Lekunberri apaintzeko "dekoratu" gisa erabiltzen den paisaia baino zerbait gehiago dira. Larraun haran bat da, Lekunberri administratiboki bertako kide izan zena, mila biztanle inguruko hamasei herri biltzen dituena, aspalditik demografia-tasa negatiboa duena eta bere iraunkortasunerako mugikortasun-, konektibitate- eta etxebizitzairtenbideen alde lan egiten duena; baina, era berean, oinarrien dokumentuan zehazten den bezala, "aitortutako kultura- eta natura-ondasun horien eragile aktiboak ere badira, balio komunitarioak, produktuak eta iraunkortasuna zaindu eta sustatuko dituztenak, eta, oro har, ingurumenarekiko konpromisoa izango dutenak".

FITUR azokako Nafarroako Pabiloian zegoela, Lekunberriko alkateari komunikabideetan entzun eta irakurri diogunez, esan daiteke, Larraun "protagonista izendaezina" dela sari horren berri ematen denean. Komunikabideak aukera ona ziren Larrauni dagokiona zehazteko, baina, dirudienez, oso zaila zen Mendukiloko haitzuloez hitz egitea eta Astitz-Larraun inguruan kokatzea, Larraun ibaiaren iturburuaren seinatzea eta Iribas-Larraunen kokatzea, eta Mugiro-Larraungo Plazaola Bideko Ixkier ur-jauzia nabarmentzea. Zaila izan behar zuen Larraungo 25 landetxeri buruzko datua gehitzea, Lekunberriko hotel baten eta bost landetxeren datua ematen denean. Hau bezain erraza.

Turismoko eskaintza horietako batzuk Lekunberri kudeatzen ditu, Larraungo Udalarekin, beste herri batzuekin eta beste erakunde batzuekin batera,

**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza


**urrutia
enea**
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

**OTXOTORENA
okindegia**
ARRIBE 
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce *consulting*
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN
GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

**GALBURU
okindegia - panadería**
Egur-labeen egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

hitzarmen, partzuergo edo mankomunitate bidez. Iruditzen zait beste modu batera informatu beharko litzatekeela.

Uste dut Lekunberriko alkatearen aldetik komunikazio gabezia eta ikuspegi falta egon dela lorpen hau Larraungo bizilagunekin partekatzeko eta hartutako konpromisoa bultzatzeko haien konplizitatea bilatzeko. Larraungo herriei ikusgarritasuna emanez.

Lekunberri proiekzio handiagoa eskaintzen zaiola ulertzen dut. Eta, batez ere, bereizketa horrek berekin dakartzalako "konpromisoa eta etorkizuneko ekintzak", eta horiek ikusita, Larraungo inplikazioa beharrezkoa izango da haietako batzuetan.

Eta, azkenik, zigiluak eskatzen duen etorkizuneko konpromiso horretan, gomendagarria litzateke beste leku batzuetan izandako esperientziak kontuan hartzea; izan ere, turismo-helmuga gisa izandako bilakaerak turismo-jardueraren mugetara eraman ditu, biztanleen bizitegi-moduarekiko eta jardueretikiko oreka hausten denean. Hala azaldu zuten Nafarroako Fitur pabiloian, masifikazio-arriskuari buruz, Bakedanoko ordezkariak Urederraren iturburuko sarbideari dagokionez, bai eta Erriberako Eder Partzuergokoak ere, Errege Bardearako sarbidearen murrizketei dagokionez.

Miren Aialde,
Larraun Ibarreko herritarra.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitzberri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologoa
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainenetan
- Mikroblading bekainenetan

“Lasterketa bukatzea zen helburua, eta baldintza oso onetan bukatu dugu gainera”

Lekunberriko Sastraka tailerrekoek Dakar Classic rallyan parte hartu dute. Iñigo Ruiz mekanikari gisa joatekoa zen, baina kopilotu lanetan aritu behar izan du. Iñigo Garcia, berriz, positibo eman zuen koronabirusean, eta etxetik jarraitu du lasterketa. Pozik daude lasterketa bukatu dutelako.

Abentura ez zenuten espero bezala hasi. Zer gertatu zen?

Ruiz: Hasieran, zazpi pertsona ginen taldean. Iñigo kopilotu bezala joatekoa zen Denisekin, eta beste auto batean, berriz, Miguel eta Atxo. Dani eta biok mekaniko bezala joatekoak ginen, eta Benito kamioiaren txoferra zen. Baina joan baino hiru bat egun lehenago, Iñigok positibo eman zuen koronabirusean, eta aireporturako bidean gindoazela, Daniren PCR probaren emaitza ailegatu zen: positibo eman zuen hark ere.

“Aurretik egin beharreko lana oso ongi egin genuelako ez genuen izan arazorik; horrek asko lagundu digu Dakar rallya bukatzen”.

Garcia: Taldeko bi ezin izan gara joan. Berez, bi auto eta kamioi bat ginen joatekoak: kamioi batean hiru pertsona, eta auto bakoitzean, bi. Kamioiko postu bat ezin izan dugu bete, eta kopilotu postu bat Iñigok bete du, kamioian ibili beharrean.

Ruiz: Kamioian bi lagun joan behar dira nahitaez. Denisen lagun katalan bat ezagutzen genuen, haren babesle izandakoa, eta kamioian sartzeko faborea egin zigun. Berez, prentsako baimena zuen, baina antolatzaileekin hitz eginda lortu genuen baimena ematea. Kopilotuaren lana azkar-azkar ikasi behar izan nuen.

Zuen aurreneko aldia izan da?

Ruiz: Denontzat izan da berria, Denisentzat izan ezik. Hark 2007ko Afrikako Dakar rallya egin zuen, baina ezin izan zuen bukatu.

Nola izan da prestaketa?

Garcia: Guk bi eginkizun izan ditugu: batetik, hango proban parte hartu dugu, beste taldeko kideek bezala; eta, bestetik, gu arduratu gara autoak prestatzeaz eta mantenu lanak egiteaz. Ez bakarrik autoaz, baita kamioian eraman behar ziren ordezeko piezez ere. Kamioia ez da eramaten lasterketan parte hartzeko, baizik eta asistentzia bezala, beharrezko erremintak, ordezeko piezak eta ekipajea izateko. Dakar rallyak bi alde ditu: Dakar egunetan ikusten



Ruiz eta Denis Dakar rallyan. Arg: Dakar Rally

dena eta aurreko hilabeteetan egin beharreko prestaketa lana. Adibidez, lasterketa hasi baino hilabete lehenago kamioian sartu behar genituen arropak, tresnak... eta han ditugu oraindik! Hona itzuli eta beste hilabete bat itxaron behar da gauzak ailegatzeko.

Autoa bera prestatzea ere lan handia izango da, ezta?

Garcia: Araudiari oso adi egon behar duzu. Orain dela urte batzuk arte, FIA Nazioarteko Automobilismo Federazioa ez zegoen Dakar rallyan sartuta, eta gaur egun haiek zehazten dituzte araudia, pautak... Parte hartu nahi duzun kategoriaren arabera neurri batzuk edo beste batzuk bete behar dituzu. Hara joatean, egiaztapen teknikoak egiten dituzte, eta autoa ez badago eskatutako arauen barruan, ezin zara lehiatu.

Ruiz: Araudi teknikoa ingelesez eta frantsesez dago, oso labur azalduta, paperean, eta zalantzak izan ditugu. Zuzendari teknikoarekin hitz egin genuen zalantzak argitzeko, frantses batekin.

Garcia: Aurreneko aldiaren saltsa handia da, baina gure eguneroko lanaren antzekoa izan denez dena, moldatu gara. Autoak egitera, konpontzera eta prestatzera ohituak gaude.

Ruiz: Gauza horiek argi utzi behar dira. Izan ere, inbertsio guztiak egin eta gero Marseillako portura joan eta esaten badizute ez dituzula neurriak betetzen, zer egin dezakezu han? Gure kasuan, kontu txiki batzuk moldatu behar izan genituen. Aurretik egin beharreko lana oso ongi egin genuelako ez genuen han arazorik izan. Horrek asko lagundu digu Dakar rallya bukatzen.



Ruiz eta Garcia, Sastraka tailerrea. Arg: Labrit

Kostu ekonomiko handia da?

Garcia: Dakar bat ongi egitea oso garestia da. Normalean mekanikaririk gabe joaten diren motor gidariek lasterketa utzi behar izaten dute bosgarren edo seigarren egunean, eta orain ulertzen dugu zergatik. Azpiegitura sendo batekin joaten ez bazara, asko sufritzen da. Denisek Dakar rallyra joatea proposatu zigulako joan gara gu. Lasterketan parte hartu nahi zuen, eta gu harentzat lan egitera joan gara, gastuak hark ordainduta.

Ruiz: Denis gure bezero on bat da, aspaldikoa, eta konfiantza dauka gudan. Lehengo urtean Dakar Classic ikustean, gustatu egin zitzaion, eta pentsatu zuen baldintza horiekin berriro joan zitekeela, 2007an gelditu zitzaion arantza kentzeko. Inñigori proposatu zion orduan rallyan parte hartzea, eta autoa bilatzen hasi ginen. Hori egiten ari ginen bitartean, Atxo haren lagunarekin hitz egin zuen, eta talde bat egitea erabaki zuten, elkarrekin joatea. Gastu guztiak errazago ordaintzen dira biren artean. Talde bezala, gainera, elkarri lagun diezaiokezu, lasterketan bertan zerbait gertatuz gero.



Oso pozik daude egindako lasterketarekin. Arg: Dakar Rally

“Denisen autoa osorik egin dugu tailerrea, hutsetik hasita”

“Egunero 700 kilometro egiten genituen gutxi gorabehera”



Zorionez, Ruizek eta Denisek ez zuten matxura larririk izan. Arg: Dakar Rally

Atxoren autoa tailerlean osatu genuen, eta Denisena, berriz, osorik egin dugu hemen, hutsetik.

Orain dela urtebete inguru hasi zen dena?

Garcia: Apirilean erosi genuen autoa, Zaragozan, eta prestatzen hasi ginen. Bitartean, Dakar rallya prestatzeko nabigazio ikastaro batzuk egin ditugu, baita proba txikiren bat ere.

Nolako izan da hango esperientzia?

Ruiz: Hiru astez egon gara han. Lasterketa hasi baino astebete lehenago joan behar duzu, autoa portutik ateratzeko, eskatutako moldaketak egiteko, administrazioaren paperak betetzeko... Hara joan baino lehen, PCR proba bat egin genuen

hegazkina hartu aurretik, eta han beste bat egin ziguten. Rallyan hasi baino egun bat lehenago, probarako egun bat dago, zein kategoriatan parte hartu nahi duzun erabakitzeko. Guk H2 kategorian parte hartu genuen, erdikoan.

Zenbat etapa izan dira?

Ruiz: Hamahiru etapa izan dira, hamalau egunean; atsedenerako egun bat dago tartean. Atsedenez eguna esaten zaio, baina berez autoari erreparatu handi bat egiteko eguna da; beraz, ez duzu asko deskantsatzen. Egunero 700 kilometro egiten genituen gutxi gorabehera, eta horietatik 250-300 inguru kronometratuak izaten ziren. Classic modalitatearen eta Dakar rallyaren arteko desberdintasuna da Dakar rallyan ahalik eta azkarren egin behar duzula lasterketa, eta Classic modalitatean, berriz, batez bestekoak jartzen dituzte. Adibidez, lehenengo bi kilometroetan 60ko abiadura joan behar duzu, gero 70ekoan... Hori hala, badakite kilometro bakoitzean zein ordutan egon behar duzun, eta bidean kontrol sekretu batzuk daude. Segundo bat aurreratzen bazara, puntu bat kentzen dizute, eta beranduago iristen bazara, gauza bera. Kontrol horiek saltatzen badituzu ere, puntuak kentzen dizkizute. Guk adibidez bat pasatu genuen nahi gabe, eta 380 puntu inguru kendu zizkiguten. Batzuk oso segidan daude, eta oso adi joan behar duzu. Tabletarekin abiadura

IORTIA CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....
24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

kontrolatzen duzu, eta rutometro digitalarekin, berriz, non zoazen, ez galtzeko.

Zaila izan da paisaia horretan gidatzea?

García: Pilotu bezala oso kontzentratuta egon behar duzu. Garrantzitsuagoa da kopilotu lan on bat egitea, pilotu lan on bat egitea baino.

Ruiz: Beste autoko kopilotu Miguelek urte asko daramatza sistema horrekin, eta eskola azkar batzuk eman zizkidan lehenengo egunetan. Hasieran nire helburua zen ez galtzea, eta pixkanaka batez besteko kontuekin jolasten hasi nintzen. Nahiko azkar hartu nion martxa. Akatsak eginez ikasten duzu.

Beraz, ez zenuten matxura larririk izan.

García: Lasterketa bukatzea zen helburua, eta baldintza oso onetan bukatu dugu gainera.

Ruiz: Psikologikoki lan handia egin genuen tarte hori bukatzeko. Ni nintzenek mekanikari bakarra eta mugatuta ginenez bi auto konpontzeko, bagenekien pixka bat sakrifikatu behar genuela, mantsoago joan behar ginela toki zailetan. Talde bereko beste autokoak eskarmentu handikoak ziren, eta lasterketa honetan beren onena ematera joan ziren, baina istripu bat izan zuten, eta autoa irauli egin zitzairen.

García: Autoa izorratu egin zitzairen, eta laugarren egunean lasterketa utzi behar izan zuten. Laugarrenak zihoazen sailkapen nagusian.

Zuek zein postutan geratu zineten?

Ruiz: 41. postuan sailkapen nagusian eta 14.ean gure kategorian. 148 auto ginen denera, eta 130 inguruk bukatu genuen.

Iñigo, kolpe handia izan zen



lasterketaren atarian geratzea?

García: Aurreko astean ez nuen gertatutakoa asimilatzen. Bi urte eman ditugu koronabirusa saihesten bai etxean, bai lanean... eta justu horrelako aukera baten ateetan kutsatzea sinestezina izan zen niretzat. Zorionez, etxeko laurok ongi pasatu dugu fisikoki. Baina amorru handia eman zidan, zeren egun bat pasatu nuen gaixo eta gainerakoetan etxean egon nintzen. Bitartean, taldea Dakar rallyan, eta ni begiratzen ea astelehenean beharrezko astezkenean har nezakeen hegazkina, klinika pribatuetan PCR probak egin eta egin... Aste eta erdian zazpi PCR proba egin nituen! Negatibo eman nuen gainerakoei bost egun falta zitzaizkienean itzultzeko. Baina tailerra irekita genuen, laguntza behar zen, eta bagenekien gure negozioa hemen zegoela. Ez zuen merezi hara joatea.

Espero duzue joateko beste aukera bat izatea?

García: Ez da erraza. Diru asko behar da, eta guk zorte handia izan genuen. Baina ikusiko da!

Ruiz mekanikari lanetan rallyan.
Arg: Iñigo García

"41. postua lortu dugu sailkapen nagusian, eta 14.na gure kategorian"



ARAITZEN BIZI ETA LAN EGITEKO

Orain dela sei urte, Araizko Udalak gogoeta saio batzuk egin zituen ibarraren etorkizuna bermatzeko helburuz. Han bildu ziren gogoetek emaitzak eman zituzten, eta berriz ere herritarren nahiak bildu nahi dituzte. Horretarako, otsailaren 25ean gogoeta saio ireki bat egingo dute 17:30ean Araizko udaletxean; lehen zatian, udalak azken urteetan egindako lana azalduko dute, eta bigarrenean, berriz, herritarren ideiak bilduko dira. Elikadura burujabetza, nekazaritza, baserrien ekoizpena, Araizko Zaporeak, turismoa, energia kooperatibak, ostalaritza, turismoa eta abar izango dira gaiak.



LEKUNBERRIKO ETA LARRAUNGO UDALEK KOMUNEAN DITUZTEN INSTALAZIOEN HITZARMENA BERRITZEKO ADOSTASUN FALTA

2009. urtean, bi udalek hamar urteko luzapena zuen hitzarmen bat sinatu zuten komunean dituzten zerbitzuak kudeatzeko; besteak beste, Ibarberri eskola, haur eskola, kiroldegia eta Eguneko Zentroa. Alabaina, geroztik ez dute hitzarmena berritu. Larraungo Udalaren arabera, hainbat bilera egin dira adostasun bat lortzeko, eta ados jarri ez direnez, udalbiltzarrak adostu du Lekunberriri proposatzea duen 126.413,29 euroko zorraren %50 hiru hilabeteen ordaintzea, eta beste %50, berriz, hiru urteko epean hitzartutako instalazio eta zerbitzuetan egindako inbertsioetara bideratzea. Lekunberriko Udalak, aldiz, zalantzan jartzen du zor hori badagoenik, eta komunean dituzten zerbitzu publikoekin aurrera jarraitzeko hitzarmen berri bat sinatzearen alde agertu da.

EUSKAL PRESOEN ALDE

Urtarrilaren 8an, Sare euskal presoek eskubideen aldeko plataformak ehunka mobilizazio egin zituen aldi berean Euskal Herriko hainbat herritan. Araitzen herri kirolak izan ziren, baita pintxo dastaketa ere. Araizko Sare taldeak eskerrak eman nahi dizkie ekitaldian parte hartu zutenei eta antolatzaileei. Hileroko azken ostiralean elkarretaratzea egiten dute Beteluko aparkalekuan, 20:00etan.





HERGARAI ETA ARAITZ, ELKARTUTA AURRERA

Araizko Udaleko hiru ordezkari Iturengo Hergarai bailaran izan dira, etorkizunera begira dituzten kezkei eta erronkei buruz hitz egiteko, eta elkar laguntzeko. Hergarai bailara Nafarroa Beherean dago, bost herrik osatzen dute, eta laborantza da ekonomiaren oinarria. Kudeaketa, despopulazioa eta laborantza landu zituzten topaketa horretan. Orain dela hamabi urte, Hergarai ibarra dinamizatzeko helburu zuen prozesu bat abiatu zuten. Aurrerantzean, elkar lagunduta, Araitz sendotzea eta hobetzea da asmoa.



TTUTTURREKO BAZKIDE EGITEKO AUKERA

Ttuturre kirol elkarteak bazkidetza kanpaina abiatu du, kluba indartzeko helburuarekin. Urteko kuota 15 eurokoa da. Elkarteak gogoz heldu dio 2022ko denboraldiari, eta urte osorako irteerak antolatu dituzte jada. Euskal Herrian eta Pirinioetan egiteko hamar irteera prestatu dituzte, horiek guztiak Larraun, Basaburua, Araitz, Betelu, Irurtzun, Areso, Arakil, Leitza edo Ultzamako mendizaleekin. Nabarmendu dute bazkide izateko ez dela mendizalea izan beharrik, eta xede nagusia dela inguruko mendiak eta herriak ezagutaraztea.

Info. gehiago: www.larraun.info/ttuturre

LEKUNBERRIKO UDALAK 3 MILIOI EUROKO AURREKONTUA AURKEZTU DU

Lekunberriko Udalak 3 milioi euroko aurrekontua aurkeztu du 2022rako. Mota guztietako zerbitzuen aldeko apustua nabarmendu dute: herriaren mantentzea, hezkuntza, garraioa, turismoa eta abar. Gainera, inbertsio berritzaileak egiten dituzte, hala nola bidegorriaren argiztapena, Aralar kalea hobetzeko proiektua idaztea, rokodromo berria sortzea eta Telleria proiektua.



Sagardoaren kimu berriak

Abian da aurtengo sagardo garaia. Aurten ere neurri batzuk bete beharko dira; besteak beste, oraingo, sagardo berria pitxerretan zerbitzatuko dute, eta txotx mahaika egin ahal izanen da. Halere, sagardogileak lan egiteko gogoz daude, eta sagardo garaia maitatza bukaera arte luzatuko dute. Madotzen, Ioseba Rubio eta Montse Armendariz Perkatzena izeneko sagardoa ekoizten hasiko

16

Montse Armendariz eta Ioseba Rubio, Madotzen. Arg: Labit



Oderizko Juanluzenea, Aldazko Martitxenea eta Lekunberriko Toki Alai dira gaur egun eskualdean dauden sagardotegiak. Horiei, baina, beste izen bat gehitu beharko zaie laster: Perkatzena. Tafallako Ioseba Rubio eta Montse Armendariz bikotearen proiektu kuttuna da Perkatzena izena izango duen sagardoa. Madotzen landatu dituzte sagastiak, eta haien asmoa da herrian bertan dagoen baserri batean irekitzea sagardotegia. Izatez, ez dira baserritarrak, "kalekumeak" dira, haien hitzetan, baina ilusioz gainezka daude, eta beren onena ematen ari dira proiektua aurrera atera ahal izateko, beti gustatu izan baitzaie baserri mundua.

Orain dela bost urte erabaki zuten Iosebak eta Montsek sagardoaren alde apustu egitea. Azaldu dute ez dela erraza izan baserri egoki bat aurkitzea proiektuari heltzeko, eta orain dela bizpahiru urte aurkitu zutela Madozko Perkatzena baserria; "liluratuta" geratu ziren, eta Nafarroako antzinako baserri "tipiko" bat delako eman zien atenzioa bereziki: "Asko gustatu zitzaigun, zeuzkan metroengatik, lursailengatik... egokia zen sagastietarako". Madotzen bertan hiru lursail dituzte, eta, horiez gain, Sartagudan ere badituzte hektareak. Madozko sagastiak kimatzen eta ongarritzen ari dira orain, eta Sartagudakoak, berriz, produkzioan daude jada. Izan ere, proiektu hau martxan jartzeko lau hektareatik gora izatea eskatzen zieten, baldintza gisa, eta horregatik hartu zituzten

“Sagardotegi tradizional bat jarri nahi dugu, ez modernoa”

Sartagudako lursailak. Gipuzkoako sagardotegi baten laguntzaz ari dira lehen sagardoa ekoizten, eta espero dute heldu diren hilabeteetan jartzea salgai. Madotzen, berriz, dolarea udan jartzea aurreikusten dute, eta hala hasiko dira ekoizten.

Orain, beraz, Tafallatik Sartagudara eta handik Madotzera dabiltza asteburuetan, lana ahalik eta gehien aurreratzen. Halaber, sagardoa saltzen hastean eta irabaziak handitzean, Madozko Perkatzena baserriaren beheko solairuan sagardotegi bat egitea da bikotearen ametsa, baita bertan bizitzea ere. Ezaugarri berezi bat izango du: sagardotegi tradizional bat izango da, ez “moderno”. “Antzinako sagardotegi bat jarri nahi dugu; sagardotegi moderno bat egingo bagenu, jendea Hernani eta Astigarraga ingurura joango litzateke hona etorri beharrean. Bizkaian, adibidez, sagardotegiek ez dute jatetxe gisa funtzionatzen: elkarte gisa erabiltzen dira, hau da, bakoitzak nahi duen janaria eramaten du eta sagardogileek sagardoa eta ikatza ematen diete, adibidez”. Horrelako zerbait darabilte buruan Tafallakoek, baina oraindik ez daukate erabat garbi zerenola egingo duten: “Ikusten eta ikasten ari gara; gainerakoetatik desberdintzeko modu bat izan daiteke, eta jakinda Bizkaiko herri eta bailara txiki batzuetan funtzionatzen duela, ikusi nahi dugu hemen bertan ere nola funtzionatzen duen”.

Sagardo ekologikoa

Bederatzi sagar barietate inguru



Oderizko Juanluzenea sagardotegian upelak prest daude. Arg: Labrit



Madotzen duten sagastietako bat. Arg: Labrit

landatu dituzte sagastietan; horietatik bost Nafarroakoak dira izatez, eta gainerakoak, berriz, Euskal Herriko beste lurralde batzuetakoak. Sagardotegiaren kasuan bezalaxe, uste dute sagardoak ere berezia izan behar duela, gainerakoek ez daukaten zerbait izan behar duela, eta, horregatik, sagardo ekologikoa ekoiztu nahi dute batez ere, Nafarroako sagar mota berezi batzuk erabilita: “Nafarroan orain dela mende bat baino gehiago galdu ziren sagarrekin ekoiztu nahi dugu sagardoa, ekologikoa batez ere; gainerako eskaintzetatik aldendu behar dugu, eta ezberdintasunak bilatu. Uste dut sagar barietate horiek guztiak erabiliko dituen sagardotegi bakarra garela. Horrez gaiz, gure pentsaeraren arabera, ekologikoan ekoiztu behar da, eta lurra ez da produktu kimikoekin kutsatu behar”.

Produktu kimikoak ez ezik, ahalik

eta makina gutxien ere erabili nahi dute produkzioan, eta abereak izango dira, nolabait, funtzio hori beteko dutenak: “Modu biodinamiko batean lan egin nahi dugu; ez ditugu makinak sartu nahi. Arbolen artean normalean baino tarte handiagoa utzi dugu, eta belarra haztean ardiak sar daitezke sagastira, adibidez. Gaur egun, industriaren ikuspuntutik, landareak bata bestearengandik oso gertu landatzen dituzte, produkzio handiagoa izateko, eta guk ez dugu hori bilatzen”.

Pazientzia behar da horrelako prozesuetan, eta garrantzitsua izaten da zikloari behar duen denbora ematea. Fruta arbolei mota askotako mentuak jartzen zaizkie gaur egun, barietate pila bat daude, eta sagardogile bakoitzak erabakitzen du fruta arbolak nola mentatu. Ioseba eta Montseren kasuan,



Aldatzko Martitxonea sagardotegia. Arg: Labrit

Nafarroan dagoen sagarrondo basati mota bakarraren aldeko apustua egitea erabaki dute, fruta ematen hastea asko kostatzen zaiona baina gero arazorik ematen ez duena, edo arazo gutxiago behintzat. "Orain, agroindustrializazioarako bidean gaude, eta nahi duzun bezala mentatu ditzakezu arbolak. Gehienek 'nanizante' izenekoak jartzen dituzte; horrek bi urtean ematen ditu sagarrak. Guk Beintza-Labaienetik hartu ditugu. Patxakoa esaten zaio mentuari, eta Nafarroan dagoen sagarrondo basati bakarra da. Horrek, arbola handi bat ematen du. Asko kostatzen zaio produzitzen hastea, sei edo zazpi urte inguru, baina gero ez du gaitzik hartzen, oso basatia delako. Gure lursailak dauden

altueragatik eta tokiagatik erabaki dugu hori jartzea. Gainera, horren azpian lasai ibil daitezke ardiak edota poneyak, adibidez".

Nafarroan, jatorri izenik ez

Euskal Sagardoa jatorri izena 2016. urtean sortu zuten, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko sagardogileak elkartuta. Jatorri izen horrek balioa ematen die lurralde horietan ekoiztutako sagardoari, eta sona handiagoa sagardozaleen artean. Nafarroan, aldiz, gaur egun ez dago halako jatorri izenik, sagardogileak batuko dituen elkarterik, eta losebak uste du garrantzitsua litzatekeela holako zerbait sortzea, sagardogileei laguntzeko eta Nafarroan ere sagardo ona eta kalitatezkoa egiten dela zabaltzeko lau haizeetara.

Halaber, haren iritiz, urteak dira Nafarroako sagardogileak jatorri izen horren barruan sartu nahi dutela, baina ez dute lortu. Azaldu du Nafarroako produkzioak "babesteko" helburuz jartzen dituztela oztopoak, besteak beste: "Nafarroan hektarea pila bat daude, hegoaldean batez ere, eta horrelakoetan sagardorako sagarra sartzen baduzu, Tafallatik behera edota Ebro inguruan esaterako, gainerako frutalak desagertu eginen lirateke, zeren sagar mota hori ongi ordainduta dago, ez mahaikoa bezala, eta hori

Martitxonea
sagardotegia
Inaxio Begiristain



Aldatz
Nafarroa

948604607

Txooooo!x!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ



“Patxakoa esaten zaio erabili dugun mentuari, eta Nafarroan dagoen sagarrondo basati bakarra da”

guztia babesteko egiten dutela uste dut”. Hala eta guztiz ere, nabarmendu du Nafarroan beste ekinbide batzuk jar daitezkeela martxan: “Nafarroan beste gauza batzuk egin ditzakegu; beste berezko kalitate batzuk bilatu behar ditugu”.

Perkatzenea sagardoaren logoa.
Arg: Ioseba Rubio Rubio

Sare sozialetan, aktibo

Herritar askok eta askok sare sozialen bidez izan dute Perkatzenea sagardoaren proiektuaren berri. Izan ere, sagardoaren profil bat daukate Facebooken (PerkatzeneaA), baita Instagramen ere (@perkatzenea_sagardoa). Horietan, uztaren, sagastien, lanaren eta abarren xehetasunak ematen ditu Iosebak, beti umorez eta gogoz, argazkien eta bideoen bitartez. Gainerakoei sagardoaren ekoizpenari buruzko informazioa emateko bide bat izateaz gain, produkzio bidean den Perkatzenea sagardoa ezagutarazteko modu bat ere bada sare sozialetan aktibo egotea eta erabiltzaileei prozesuaren nondik norakoak erakustea. Beraz, bikote honen inguruko edota esku artean daukaten proiektuari buruzko xehetasun gehiago jakiteko, sartu helbide horietara.



Perkatzenea izena du Iosebak eta Montsek erosi duten baserriak. Arg: Labrit


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884


ekin
rotulacion
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

“Korrikan talde bat osatzen dugu, babesa ematen diogu elkarri, ilusio komun bat dugu”

Zakarrismoa

Traktore batekin Printza gune auto-gestionatuko atea bota zuen. Posible da egin zuen pertsona ez buruko osasunez oso ongi egotea (emandako argudioetatik horrela igarri daiteke), posible da mozkorra egotea egin zuen momentuan, baina badago zerbait sakonagoa. Urte askotan gure inguruan garatu izan den jarrera bat antzeman daiteke hemen: “Zakarrismoa” deitu diezaiokegu.

Indarraren legea, basatikeriarena, parrandatan egiten diren puskaketak adibide. Gabari gazte-txean izan genituen bizipenak horren inguruan. Inguruko nork ez du aguantatu “zakar” jartzen den norbaiten purrusta bat? Eta normalean, gizonak dira zakar jartzen direnak, eta emakumeek zenbatetan jaso ote dituzte bereziki zakarkeria horiek.

Zakar jartzearen jarrera honek duen beste ezaugarri bat, nola-baiteko “inpunitatearen” sentsazioa da. Denok dakigu nor jartzen den zakar, biolentzia modu justifika ezina dela, baina, zer egiten diogu, badakizu nola jartzen den, festak dira, mozkorra dago... Zakar jartzen direnak gainera, halako “beldur” aura bat sortzen dute haien inguruan ez salatuak izateko, arriskutsuak izatearen ideia hori, hobe duzula haien laguna izan eta ez etsaia... Bada burua berotzen ibiltzen denik ere zakar jartzen den hori zakartu dadin...

Salatzen ez dugun bitartean, onartzen jarraitzen dugun bitartean, bere legea inposatzen jarraituko du. Hemendik salatzen dut zakarrismoa, eta ez dut onartuko. Aurrera bihotzezko proiektuak!



‘HitzEkin’ abestiak girotuko du 22. Korrika, eta Nerea Urbizu lekunberriarra izan da kantaren egilea eta zuzendari artistikoa. Besteak beste, Ibarberriko 4. mailako ikasle batzuk agertzen dira bideoklipen. Urbizuk azaldu duenez, istorio desberdinak kontatzen dituzte, eta horietako bakoitzak bere errealitatea du, “bere korrika egiten hasteko arrazoia”.

Zer sentitu zenuen aurtengo abestia egiteko eskatu zizutenean?

Sekulako poza; ohore handia da Korrikari abestia egiteko aukera jasotzea, amets bat. Sekretupean gordetzeko eskatu zidaten, eta hori zaila egin zait, ezin nuen nire poza nahi nuen jende guztiarekin partekatu.

Sustrai Colinarenak dira hitzak. Ongi moldatu zarete? Nola izan da prozesua?

Primeran, hasiera-hasieratik. Duela ia ia bi urte egin nion proposamena, eta lehenbiziko momentutik baiezkoa eman zidan. Abestia pandemiaren garaian eginga da, eta pandemia oso-osorik bizitu du, martxo hartatik aurkezpen egunera arte (oraindik ere bizi dugun egoera ez dago nahi genukeen bezala, pentsa). Horregatik, gorabeherak izan ditu, zer esan nahi genuen aldatuz joan da prozesuan, aktualitateak ere mugitu gaitu. Argi genuen Pirritx, Porrotx eta Marimotots omenduei keinu bat egin behar zitzaieela hitzetan ere, eta hala izan da. Hiru aldiz geratu gara

prozesu osoan, eta hiruretan izan da abestian gehien aurreratu dugun momentua. Begiradak eta gorputzak emailak, deiak eta whatsappak baino askoz ere indartsuagoak dira; hori inoiz baino argiago geratu zait.

Bideokliparen zuzendari artistikoa ere izan zara. Hasieratik argi zenuen zer islatu nahi zenuen bideoklipen?

Inolaz ere ez. Argi genuen jendea nahi genuela, adin desberdinetakoa, aniztasuna zentzu guztietan. Eymard Uberetagoena ezagutzen dut —bideoklipa ekoiztu du—, eta dokumental sozialak dira gehienbat egin izan duena. Abestia bera oso soziala da, eta haren ideiak onak izan zitezkeela pentsatu nuen. Eta hala izan da. Elkarriketa batean ideia zaparrada egin, eta hala atera zen.

Euskal Herriko probintzia desberdinetan grabatu duzue. Nahita egindako hautu bat izan da?

Noski. Bilatzen genuen aniztasun horren barruan ere sartzen da keinu

hori. Ilusioa egin zidan Lekunberrin ere grabatzeak. Eskola bat behar genuen, haurrak, eta Ibarberriko 4. mailako ikasleak gonbidatu genituen, nahiz eta irudietan zoritxarrez denak agertzen ez diren. Hemendik euren parte-hartzea eskertu nahi dut. Bestalde, 3 minutu eta erdiko bideoklip batean ezin da nahi duzun guztia kontatu eta erakutsi. Dena sartu nahi baduzu, bideoa ez ulertzeko arriskua dago, gehiegi karga daiteke.

Istoria desberdinak kontatu dituzue bideoklipetan; film labur moduko bat da. Zer dute komunean istorio horiek?

Hori izan da asmoa, film labur bat egitea. Istoria desberdinak daude, bakoitzak bere errealitatea du, bere korrika egiten hasteko arrazoia. Bada nazka-nazka eginda dagoen emakume bat, etorkin bat ihesi, konfinamenduagatik beldurrez bizi den emakume bat, basoa txikitu behar duen langile bati giltzak kendu dizkion aktibista bat, teknologien mendekotasunaz nazkatuta dauden nerabeak, eskolatik atera eta kalean maskara kentzen duten haurrak... Eta gure Korrikak batu egiten ditu egoera desberdin horiek: Korrikan talde bat osatzen dugu, babesa ematen diogu elkarri, poz bat dugu. Korrikak sorrarazten digun zirrara horrek indar bat du, zerbait mugitzen digu barru-barruan, aurrera egiteko gogoia ematen digu edozer dela. Energiatz beteta dago Korrika.

“Arantzak erazteko” dio kantuak. Zer arantza? Zergatik?

Bi urte hauetan arantza asko egon dira, bai. Egin nahiko genituzkeen gauza asko ezin izan ditugu egin, ikusi nahiko genituzkeen asko ez ditugu ikusi, harremanak gutxitu egin dira, besteetan txartu eta batzuetan galdu. Noiztik da gizakia



ez-soziala? Hartu behar izan diren hainbat neurri oso gogorrak (izan) dira. Jendeak aurrera egiteko gogoia behar du maila guztietan osasuntsu jarraitzeko. Korrika, berez, 2021ean izan behar zen, eta ezin izan zen ospatu. Beraz, Korrika bera aurten egin ahal izatea niretzat bada ospatzeko zerbait, gizartea batzeko aukera bat, oxigenatzeko modu bat gizarte bezala ere.

Pertsona famatuak ere agertzen dira, Itziar Ituño eta Ramon Agirre esaterako. Propio gehitu dituzue bideoklipetan?

Haiekin harremana AEKren bitartez egin genuen. Oso euskaltzaleak dira, eta lehen momentutik baiezkoa eman zuten. Horien parte-hartzeak Korrikari beste bultzada bat ematen dio, euskarak berak behar duena. Ez dugu ahaztu behar pandemiarekin euskarak ere galdu duela.

Zuk zeuk, Anarik eta Ane Garciak jarri diozue ahotsa abestiari.

Kantu hau “erdikoen kantu” bezala ulertzen dut: erdiko belaunaldikoena. Gure ardurapean daude gure helduak, baita gure txikiak ere.

Erdiko belaunaldikoek abestutakoa da, bai, helduen eta txikien arteko kate horren bitartekari, bateratzaile garenok. Helduek guretzat eraiki dutena guk txikiei irakatsi eta eman behar diegu. Horregatik 25 eta 50 urte bitarteko hiru emakumeak. Eta bestetik, maila pertsonalean, Anari eta Ane lehenagotik ezagutzen nituen, eta miretsi egiten ditut. Anari beste tesitura batzuetan entzuten ohituta gaude, baina ongi “enkajatu” duela iruditzen zait. Anek indarra eman dio, abestia hasteko modu potentea da bera lehenik entzutea.

Oro har, zer transmititu nahi izan duzu?

Ekintzailtza, hausnarketa, indarra, aurrera egiteko gogoia, itxaropena... Baina ez da nik transmititu nahi izan dudana, gehiago da jendeak zer-nola jasotzen duen kantu hau, zer iradokitzen dion. Abestiek hori dute, bakoitzak modu batera jasotzen duela, interpretazio desberdinetarako aukera ematen dutela. Abesti honekin jendea irakatsi korrika egitera irteteko gogoia pizten bazaio, ni kontent.

MAILOPEKO
GUNDU MAILOPEKO

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

Errotaldea 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillobixiki.com
679 938 016

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

Lekunberri K.E: kluba sortu dute

Hainbat kirol diziplina elkartuta, Lekunberri K.E izeneko kirol kluba sortu dute. Eskubaloia, kirol gimnastika, disk golf, igeriketa sinkronizatua, BTT eta sokatira dira horietako batzuk. Klub horren helburua da Lekunberri herria bera kirolaren bidez sustatzea eta klubeko kideei Lekunberriren izenean jokatzeko aukera ematea. Aurrerantzean Lekunberrin sortuko diren beste diziplinei ere klubaren parte izateko aukera emango diete.



Eneko Saralegi hirugarren banakako I. Euskal Duatloiean

Urtarrilaren 6an jokatu zuten I. Euskal Duatloia, eta Errazkingo Eneko Saralegik hirugarren postua lortu zuen (34:49). Ugaitz Mugertzak irabazi zuen, 32 minutu eta 31 segundoko lana eginda, eta Arkaitz Jauregi izan zen bigarren (33:40). Azpeitiko zezen plazan egin zuten lehia, eta bederatzi herri kirolari aritu ziren: Xabier Zaldua, Ioritz Gisasola, Oier eta Julen Kañamares, Eneko Saralegi, Ugaitz Mugertza, Aritz Irazabal eta Arkaitz Jauregi. Hiru ariketaz osatutako proba da duatloia: bi aizkora saio eta korrika saio bat. Hain zuzen, 45 ontzako etzandako lau enbor moztu behar izan zituzten, lau kilometro korrika egin, eta 45 ontzako zutikako lau enbor ebaki. Azken orduko aldaketa bat ere izan zen. Izan ere, Xabier Zalduak, pentatloia hiru aldiz irabazitakoak, ezin izan zuten parte hartu, positibo eman zuelako COVID-19an. David Naredo asturiarra aritu zen haren ordean.

Bestalde, Urrezko Binakako Aizkolarien Txapelketako kanporaketak egin zituzten Leitzañan, eta Txomin Amundarainek eta Eneko Saralegik irabazi zuten (18:56). Mikel Larrañaga eta Andoni Iruretagoiena Izeta VI geratu ziren haien atzetik, segundo bakar baten aldegatik. Jon Rekondo eta Ibai Soroa ere lehiatzeokoak ziren, baina Rekondok positibo eman zuen koronabirusean, eta ezin izan zuten parte hartu. Lau bikote pasatuko dira finalean, eta martxoaren 6an egingo dute, Azpeitiko Izarraitz frontoian. Horrez gain, Hiru Hamarreko Harri jasotze Txapelketan, Hodei Iruretagoiena Izeta IV-ak 55 altxamendu egin zituen 125 kiloko hiru harri mota erabiltuta.



Beteluko kros alternatiboa

Aurten ere bertan behera geratu zen Beteluko Krosa, pandemiaren egoera dela eta. Hala ere, hainbat herritarrek krosaren ibilbidea egitea erabaki zuten, korrika, ohiturari eusteko eta herrian giro polita sortzeko. 12:00etan abiatu ziren Beteluko plazatik. Hurrengo urtean krosa behar bezala egitea espero dute.



“Nunca mais” ez al zen?

Beltzez tindaturiko irudiak iritsi zaizkigu Peruko kostaldetik. Hildako animaliak, suntsitutako flora... dena soingaineko beltz batek apainduta. Azken garaietan Peruko kostaldean izandako hondamendi ekologikorik larrienari buruz ari natzaizue.

Oraingoan lerrook ez ditut kritika zabal bat egiteko erabiliko (edo bai). Horren entzutetsua izan ez den gertaera bat mahai gainean jartzea dut helburu.

Baliteke Twitterren edo Ozeano Pazifikokoan dagoen Tonga sumendiaren eztegiaren satelite-irudiak ikusi izana. Bada leherketa dela eta, Hego Amerikako hainbat herrialdek tsunami alerta aktibatu zuten. Zoritxarrez, olatuek Peruko uretan dagoen La Pampillako findegia jo zuten petrolioaren husten ari zirenean eta “urre beltza” deiturikoa uretara pasa zen.

Repsolok hasieran 30 bat litro besterik ez zirela adierazi arren, irudiek guztiz kontrakoa diote. Autoritateek 18.000 kilometro karratu hondatu direla diote. Hogeita hamar litroek eragin zezaketenetik oso urrun.

Adituek ezinezkotzat jotzen dute ingurumena lehengortzea eta gutxienez hamar urte beharko dira egoera normalizatzeko.

Ingurune-larrialdi egoera deklaratu du Peruk. Eta zein uste duzue izan dela Repsolen erantzuna? Jazoeraren ardura hartzea eta garbiketa lanak bizkortzeko languntza eskaintzea akaso?

Ez. Beltzez zikindutako eskuak ezkutatu eta gobernuari errua botatzeko karta jokatu du. Errazagoa baita berekoia izatea eta interes pertsonalak gainjartzea interes kolektiboa baztertuta.



“Zahar etxe publikoak nahi ditugu, duinak”

Nafarroako zahar etxeetako langileek zortzi hilabete daramatzate borrokan probintziako hitzarmen bat lortzeko. Patronalak atzera bota ditu sindikatuek aurkeztutako proposamenak, eta ez da negoziatzearen alde agertu. Beteluko Amavir zahar etxeko langileak ere hori aldarrikatzen ari dira. Uste dute Nafarroako Gobernuak estutu beharko lukeela patronala, azken finean, diru publikoa jasotzen baitu zahar etxeak kudeatzeko.

Zer da zehazki eskatzen duzuen?

Nafarroan zahar etxeetako langileentzako hitzarmen bat egon dadin eskatzen dugu. Hitzarmen horretan zehaztuko lirateke urteko lan orduak, soldata, ratioak... gauza asko. Nafarroako zahar etxe batzuek hitzarmen propio bat daukate, eta guk, berriz, estatukoa daukagu, Espainiakoa. Asko daude gure egoera berean. Baina hitzarmen propio bat daukatenean egoera ere txarra da, halere. Enpresentzat errazena da estatukoa aplikatzea, eta baita patronalarentzat ere.

Gipuzkoan eta Araban, esaterako, badaukate probintziako hitzarmen bat, propioa, eta hori da guk lortu nahi duguna. Hasieran, patronala ados zegoen, baina negoziazioak hastean ez dira estatuko hitzarmenaren baldintzak hobetzeko prest agertu,

eta egin dituzten proposamenen baldintzak are txarragoak dira. Urtarrilaren 11n izan zuten azken bilera sindikatuarekin, eta esan zuten ez zituztela ez soldatak, ez lan orduak aldatuko. Gainera, azken proposamenean, ordaindutako hiru egun izatetik, bi egun izatera pasatuko ginatke, hau da, baldintza txarragoekin. Gutaz barrez ari dira.

Zergatik egin du atzera patronalak?

Hori da ulertzen ez duguna, orain ez nahi izatea. Nafarroako Gobernuak patronalaren aldeko jarrera hartu du, eta kontrakoa egin behar du: planto egin. Izan ere, zahar etxeetako itunpeko plaza batzuk ditu, eta hori diru publikoarekin ordaintzen da; baina diru hori patronalaren esku geratzen ari dira, eta zahar etxe publikoak eskatzen ditugu guk, duinak.

Zer lan baldintza zehazten ditu estatuko hitzarmenak?

Urtean 30 opor egun ditugu, eta 1.792 lan ordu; hori astakeria bat da. Garbitzaile baten oinarrizko soldata 903 eurokoa da, eta geriatra batena, berriz, 997 euro ingurukoa; ez gara 1.000 eurora ailegatzen. Ordu estra euro bat eta pixka bat gehiago kobratzen dugu, bi euro baino gutxiago, eta igandetan lan egiteagatik 18 euro gehiago ematen dizkigute, estra gisa.

Estatuko hitzarmena aplikatu aurretik, guk Nafarroako beste hitzarmen bat genuen, baina ez ginenez akordio batera iritsi, hitzarmen horretatik atera egin gintuzten, eta estatukoa ezarri. Aurreko hitzarmen horrekin, 100

Amavirreko langileak. Eskuinetik bigarrena, Rosi Gaztelumendi. Arg: Rosi Gaztelumendi



lan ordu gutxiago genituen urtean, eta 100 euro gehiago irabazten genituen. Ezin izan genuen ezer egin.

ELA, UGT, LAB eta CCOO sindikatuak elkartu dira orain negoziatzeko. Zuen eskariak aintzat hartzea espero duzue?

Hori espero dugu, ezin baitugu horrela segi. 11n egindako bilera hartan esan zieten grebarik ez egiteko. Zahar etxeetako langileok ezin dugu grebarik egin, Nafarroako Gobernuak gutxieneko zerbitzu bat emateko exijitzen baitu, eta gutxieneko zerbitzu hori urte guztian aritzen den bera da. Greba egiteko eskubidea ere kendu digute, langileok dugun eskubide bat izan arren. Hori da manifestazioetan aldarrikatzen dugun gauzetako bat. Nire ustez, alde horretatik huts egiten dugu: izatez, 4.000 langile baino gehiago gara Nafarroan, baina ezin gara denok batera grebara atera, eta horrela ezinezkoa da greba bat ongi egitea. Oso jende gutxi elkartzen gara elkarretaratzeetan. Pandemia garaian asko txalotu gintuzten, gure lana izugarri eskertu zuten denek, baina orain ez gaituzte laguntzen.

Zuen kasuan, nahiko ongi moldatu zarete pandemian, baina zahar etxe askotako langileak lanez lepo aritu dira, ezinean.

Bai. Orain bertan Iruñean kasu pila bat omen daude, eta ez daukate langile nahikorik baja guztiak egiteko. Horrek guztiak karga psikologikoa handia dakar, eta guk ere nabaritu dugu hori. Gainera, gure zahar etxean dagoen arazoetako bat da ez dutela jendea aurkitzen bajaran daudenen ordeztatzeko. Azkenean beti topatzen dute baten bat, baina asko kostatzen zaie. Nork egin nahi du lan baldintza horietan? Normala da. Iruñetik etortzen den jendeari,



Arkumeak hasiak dira jaiotzen. Arg: Labrit.

adibidez, kilometrajea ordaintzea eskaintzen diete lan egin dezaten, soldata konpentsatzeko.

Zein da negoziazioen hurrengo pausoa?

Beste bilera bat egingo dute, otsail hasieran segur aski. Hogei egunez behin elkartzen dira. Baina berriro ere baldintza kaxkar horiek proposatzen badituzte... ez goaz inora. Nik uste dut gobernuak presionatu behar duela, baina ez du presionatzen. Azken finean, patronala etekina ateratzen ari zaio honi guztiari, diru publikoa hartzen duelako. Eta gobernuak ematen dionez diru hori, langileentzako lan baldintza duinak exijitu beharko lizkioke. Gobernuak ez da ezer egiten ari.

Zer esaten dizute sindikatuek?

Borrokan jarraitu behar dugula; animatu egiten gaituzte. Zortzi hilabete daramatzagu jada horrela. Nafarroak duen arazo orokor bat da, eta patronala sindikatuen proposamen guztiak atzera botatzen ari da, haiek ezertxo ere proposatu gabe.



Iruñean egindako manifestazioetako bat. Arg: Rosi Gaztelumendi

“Garbitzaile baten oinarrizko soldata 903 eurokoa da, eta geriatra batena, berriz, 997 euro ingurukoa”

“Pandemian asko txalotu gintuzten, baina orain ez gaituzte laguntzen”



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Adimen emozionala

Adimen emozionala aldaketetara egokitzeko aukera ematen duen fenomeno psiko-fisiologikoa da, eta pertsona guztiak barnean duten alde emozionala eta sentiberatasuna integratzea da bere helburua. Pertsona guztiak ditugu sentimenduak eta emozioak baina ez dugu gure adimen emozionala modu berean garatzen, horregatik orain ikusiko dugu zer den eta nola landu dezakezun zure adimen emozionala.

Zer da adimen emozionala

Daniel Goleman izan zen adimen emozionala garatzearen eta norberaren eta besteen sentimenduak ezagutzeko gaitasuna hobetzearen garrantzia azpimarratu zuena. Gainera, adimen emozionalaren oinarriko bost gaitasun azpimarratu zituen gaien trebatzeko:

1. Zure burua emozionalki ezagutu

Gure emozioak ezagutzeko eta ulertzeko gaitasunaz ari gara, gugan eta beste pertsonengan duten eraginaz jabetzeko. Horrez gain, gure indarguneak eta mugak aitortzea, informazio eta esperientzia berrietara irekita egotea, besteekiko elkarrekintzatik ikastea, ikuspuntu desberdinak onartuz.

2. Erregulazio emozionala zure orekaren oinarria da

Autoerregulazioa adimen emozionalaren barruan dagoen gaitasuna da, gure emozioak modu egokian adierazten jakitea ahalbidetzen duena.

Zure emozioak integratzen eta erregulatzen dakizun neurrian, malguagoa izaten jakingo duzu eta bizitzan sor daitezkeen aldaketetara hobeto moldatzen zara.

Kontzientzia emozional ona izateak gure emozioen erregulazioan laguntzen digu eta erregulazioak berak autokontrol emozional ona izatea ahalbidetzen digu.

3. Asko eta ondo komunikatu

Ulermen emozional ona izateak emozioei buruzko introspektzioa eta besteen sentimenduak ulertzea baino gehiago dakar.

Era berean, garrantzitsua da emozionalki komunikatzea eta besteekin emozionalki elkarrengaitan jakitea. Gure emozio desatseginei intentsitate murrizteko eta motxila gehigarria ez kargatzeko modua da.

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Granja Martikonea, GANTZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Josune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

4. Enpatiak emozionalki adimentsuago egiten zaitu

Pertsona enpatikoa izatea ez da soilik besteen larruan jartzea eta haien emozioak edo haien egoera partikularrak ulertzea, horretan oinarrituta jardutea eta elkarreragina ere bada.

Munduarekin enpatizatzen zaren neurrian, ulertzen duzu kontrol guztia ez dagoela zure esku eta dena kontrolatzen ez saiatzen hasten zara.

5. Berezko motibazioa kanpotik baino

Motibazio intrintsekoa izatea da besteen, dirua, aintzatespenean... oinarrituta ez bakarrik jokatzera bultzatzen gaituena. Motibazio intrintsekoa zure beharrak lortzeko eta asetzeko grina aurkitzean oinarritzen da.

Zertarako da adimen emozionala?

Nahiz eta, agian, gehiegizkoa iruditu... adimen emozionalak mundua mugitzen du. Edo, behintzat, zure mundua.

Adimen emozional ona duten pertsonak harreman emankorrak, aberasgarriak eta osasuntsuagoak dituzte.

Jendearekin konektatzea, besteen lekuan jartzea, itxuraz haratago ikustea eta pertsonen esentziarekin konektatzen jakitea, ez da inoiz oharkabean pasatzen den zerbait.

Emozionalki adimentsua izatea beharrezkoa da bizi garen mundura egokitu ahal izateko. Guztietarako balio digu. Zure lehen kafea esnearekin taberna batean eskatetik pertsona batekin bizitzako unerik korapilatsuenetan lagundu ahal izateko.

Ahalik eta ondoen bizi ahal izateko balio du, besteekin erlazionatu ahal izateko ikuspuntu desberdinak ulertuz, pertsona malguagoak eta irekiagoak izanik. Akatsak antzemateko eta haietatik ikasteko gaitasun handiagoa izatea, norberaren eta besteen merezimenduak aintzat hartzeko eta beste pertsonekin partekatzeko ere.

Hau hain garrantzitsua izanda, hor doaz adimen emozionalari buruzko liburu batzuen gomendioak (Somos Estupendas-en plataformatik aterata):

1. Inteligencia emocional (Daniel Goleman)
2. Emociones: una guía interna, cuáles sí y cuáles no (Leslie Greenberg)
3. Lo bueno de tener un mal día (Anabel González)
4. La belleza de sentir. De las emociones a la sensibilidad (Eva Bach)
5. La sabiduría de las emociones (Norberto Levy)
6. El mundo de las emociones (Mireia Simó Rel)
7. Emociones para la vida. El camino hacia tu bienestar (Enric Corbera)



Lekunberri, munduko herri turistikorik onenen artean

MTE Munduko Turismo Erakundeak Herri Turistikorik Onenaren saria eman dio Lekunberri. Herriaren potentzial turistikoa, baliabide naturalak, eta ekonomian, gizartean eta ingurumenean egindako lana nabarmendu ditu, besteak beste. Maria Jesus Ayestaran Turismo zinegotziaren arabera, sari horrek turistak erakarriko ditu, eta onura handiak izango ditu zerbitzuetan, inbertsioetan eta laguntzetan.

Lekunberriko pasoa garrantzitsu bat eman berri du turismoan, eta nazioartean sona handia lortu du horri esker. MTE Munduko Turismo Erakundeak sari oso berezi bat eman dio herriari: Herri Turistikorik Onenaren zigilua. Horren helburua da turismoaren bidez kultura eta tradizioak sustatzen, biodibertsitatea babesten eta aukerak sortzen dituzten herriak aitortzea, eta zerrenda horretan sartu du Lekunberri. Udaleko ordezkarien iritziz, lan onaren eta egindako esfortzuen adierazle da eskuratutako saria, eta hainbat onura ekarri dizkio herriari; besteak beste, turista gehiago erakarriko ditu, eta hazkunde horrek oso ondorio positiboak izango ditu herriko eta inguruko saltoki eta zerbitzuetan. Urtarrilean Madrilan egin duten Fitur

nazioarteko turismo azokan eman die saria Turismo eta Merkataritza Ministerioak Maria Jesus Ayestaran Lekunberriko Udaleko Turismo zinegotziari eta Gorka Azpiroz alkateari. Ilusioz gainezka itzuli dira, garaikurra eskuetan.

Ez da lan makala izan, eta, hain zuzen, egindako esfortzua baloratu dio Lekunberriko Udaleri Turismo Ministerioak, "proposamena sortzean lan bikaina" egin dutela nabarmenduta. 2021eko aldi honetan, 170 hautagaitza aurkeztu dira lehiaketara, eta munduko 32 herrialdeetako 44 herri saritu dituzte. Honako ezaugarri hauek azpimarratu dizkio turismo erakundeak Lekunberri saria ematerakoan: batetik, herriak duen potentzial turistiko garrantzitsua,

Hainbat onura ekarriko dizkio herriari, eta aurrerapauso garrantzitsua izango da Lekunberri nazioarteko turismo mapan kokatzeko

iraunkortasun ekonomikoa eta soziala indartzen duten beste sektore batzuen garapen ekonomikoarekin konbinatuta; bestetik, zonako baliabide naturalak, eta horiek nola dauden eta erabiltzen diren, ingurumenaren iraunkortasuna aintzat hartuta; hirugarrenik, elementu horiek guztiek, udaletik martxan jarri diren politiken ikuspegi integratzailearekin batera, hautagaitza osatu bat bihurtzen dute iraunkortasunaren hiru zutabeetan: ekonomian, gizartean eta ingurumenean; eta, azkenik, Lekunberriko landa turismorako hartu dituen balioak eta ekintzak nabarmendu ditu.

Turista eta lan eskaintza gehiago

Besteak beste, Maria Jesus Ayestaran Lekunberriko Udaleko Turismo zinegotzia aritu da proiektu esanguratsu horren atzean lanean, Leire Iriarteren asistentzia teknikoaren laguntzarekin eta Gorka Azpiroz alkatearen gidaritzapean. Haren arabera, zigilu horrek hainbat onura ekarriko dizkio herriari, eta aurrerapauso garrantzitsua izango





da Lekunberri nazioarteko turismo mapan kokatzeko; hain justu, hainbat argitalpenetan izendatu dute jada Lekunberri: “Alde batetik, sari guztiak ondo egindako zerbaiten errekonozimendua izan ohi dira; beraz, dagoeneko bat gehiago da alde horretatik. Horrez gain, aipamen horrekin batera datorren publizitateak, zalantzarik gabe, turista gehiago erakarriko ditu herria eta ingurua ezagutzera”. Ayestaranek nabarmendu du iraunkortasuna eta ingurumenaren zaintza baloratzen dituen sari batek profil berezi bat duten turistak erakartzen dituela: nolabaiteko sentsibilitatea dutenak, turismo masifikatuak erakartzen duenaren guztiz kontrakoa. “Gure ustez, bereizketa hori garrantzitsua da, turismo masifikatu batek herriko egunerokoa kaltetu bailezake”.

Turismoaren gorakadari esker, zerbitzuek ere onura handiak izango dituztela iritzi du, eta lan eskaintzan islatuko dela, horrek ere gora egingo baitu: “Zerbitzuen sektoreak urteak daramatza udako oporren urtarokotasuna hausteko borrokan, eta hau urtean hilabete gehiagoz lan egiteko aukera paregabea da”. Denda txikiak izan ditu gogoan azalpenak ematerakoan: “Turisten hazkundeak denda txikiei irekita egoten laguntzen die. Eta, jakina, poza ematen du

herriko kaleak bizirik ikusteak”.

Inbertsioak eta laguntzak

Herriari oro har ere bultzada bat ematen diola azaldu du Turismo zinegotziak. Adierazi duenez, horrelako sari batek udalaren irudi instituzionala hobetzen laguntzen du, eta horrek inbertsio publikoak zein pribatuak erakartzea dakar, zuzenekoak nahiz zeharkakoak izan, hala nola Lekunberriren eta eskualdearen bilakaerarekin eta garapenarekin jarraitzeko era guztietako diru laguntzak.

Orain ailegatu zaio saria Lekunberri, baina Ayestaranek beste legealdi batzuetan egindako lana ekarri nahi izan du hizpidera lortutakoa balioan jartzeko: “Urte askotako lana eta erabaki zailak behar dira orain Lekunberri dena lortzeko; hazkunde ekonomiko eta sozial horrekin batera, turismoaren aldeko apustu sendoa egin da; gogorazi nahi dugu Lekunberriko Udalak, Jose Mari Aierdi buru zuela, Plazaolako Partzuergoaren proiektua abiarazi eta bultzatu zuela urte askoan, besteak beste. Urte hauetan guztietan udalean lan egin duten pertsoneri esker egin ahal izan da “plan” hori, ahaleginak batuz eta beti norabide berean arraun eginez. Guztien izenean jaso dugu sari hau”.

Herriak duen potentzial turistikoa garrantzitsua eta iraunkortasun ekonomikoa nabarmendu dituzte, besteak beste

2022KO ETXEPARE SARIETARA LANAK AURKEZTEKO EPEA IREKITA DAGO

Haurrentzako albumak sortzeko Etxepare saria abian da! Honako hauek dira oinarriak:

1. Hurrei zuzenduriko album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira: testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak.

2. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.

3. Lehiaketan honela parte hartu daiteke: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.

4. Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm x 21cm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).

5. Sari hau azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta arestian aipatutako baldintzak bete.

6. Lehiaketan parte hartzen dutenek albumaren maketa aurkeztu beharko dute. Lanak www.etxeparesaria.eus webgunearen bitartez aurkeztuko dira, horretarako prestatutako formularioaren bidez. Aholkatzen da fitxategiek 20 mega baino gehiago ez izatea. Egileek nahi badute, irudi originalak bidal ditzakete posta arrunt bidez epaimahaikideek jatorrizko lana ikus dezaten.

7. Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanak posta arrunt bidez bidaliz gero, lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen bio-bibliografikoa.

8. Lanak posta arrunt bidez bidaliz gero, helbide honetara bidaliko dira: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leitza (Nafarroa).

9. Lanak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 6an, ostiralean, itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2022ko ekainaren 30a izanen da.

10. Epaimahaia haur literaturan eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta udal eta mankomunitate antolatzaileek izendatuko dute. Udal eta mankomunitate antolatzaileetako teknikari batek idazkari lanak egingen ditu (hitza izanen du, baina ez botorik). Pamielak izendatutako pertsonak egon daitezke epaimahaiak egiten dituen bilkurretan (hitza izanen dute, baina ez botorik). Ez da saririk emanen epaimahaiaren iritziz gutxienerako kalitateko lanik ez badago. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

11. Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egingen da.

12. Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egingen da.

13. Saria eman eta hilabeteko epean originalak itzuliko zaizkio eskatzen dituenari. Epe hori igarota, eskatzen ez diren lanak suntsitu egingo dira. Denbora tarte horretan argitaletxeren batek aurkeztutako lanak ikusi nahi baditu, baimena eskatu beharko zaio alde aurretik egileari.

14. Oinarri hauetan zehaztu gabeko zalantzaren bat agertzen bada, epaimahaiak argituko du eta hark egiten ez badu udal eta mankomunitate antolatzaileek erabakiko dute. Sari honetan parte hartzeak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea dakar.



▶ AGENDA

OTSAILA

6 - Ttuturre kirol elkarteak antolatuta, bazkaria Oderizko Juanluzenea sagardotegian. Mendi irteera egingo dute Irañetatik Agiriara, Ata harana zeharkatu eta Oderitzera itzuliko dira. Izena eman behar da.

19 - Lekunberriko ihoteak.

25 - Goazen Araizko etorkizuna elkarrekin marraztea saio irekia Araizko udaletxean, 17:30ean. Ume zaintza zerbitzua egongo da. Horretarako, deitu 674-36 69 20 telefono zenbakira.

25 - Euskal presoan aldeko elkarretaratzea, Beteluko aparkalekuan. 20:00etan.

LAN ESKAINTZA

Lanerako eskaintzen naiz. Sektore ezberdinetan dut esperientzia, publiko zuzenarekin beti. Haurrak, adineko pertsonak edota etxeak zaintzeko prest. Mila esker. 634-406 688 (Irati).

▶ MERKATU TXIKIA

SALGAI

Esne tankea salgai, Alfa Laval markakoa, 430 litro. 686-42 70 87

INFORMAZIO GEHIAGO
ESKURATZEKO, SARTU
WEBGUNEETAN



Larraun.info:



Larraun.eus




**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

📞 616 457 540

✉ construccionesganarbe@gmail.com

📞 636 827 846



Etxe bat



bazkide bat

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE
ETA ZUZENEAN BI HILABETERO
EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE
HARTUKO DUZU!



MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:
MAILOPE@LABRIT.NET
638 652 339
[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)